

# Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 30a / 58. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 2550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## Osakidetzak anbulatorio berria egingo du 2003. urterako Gorosarri plazan

AINTZANE GARDOKI

Datorren urtean lanak hasi, eta 2003. urterako anbulatorio berria izango da herrian. Oraingoa baino askoz handiago izango da, izan ere, guztira 450 m<sup>2</sup> izango ditu. Lanak Osakidetzak hartuko ditu bere gain. Anbulatorio berria Gorosarri plazan kokatuko da.

80ko hamarkadaren hasieran inauguratu zuten egungo anbulatorioa. Orduan, mediku bat, Aretxabaletarako eta Eskoriatzarako erdibana lan egiten zuen beste bat, eta erizain bakarra ziren lanean, esan digu Gabriel Elorriaga medikuak, herriko anbulatorioko arduradunak.


“Urteak pasatu diren neurrian, profesional gehiago etorri da lanera gurera, eta gero eta estuago gabiltza. Orain, bi mediku, pediatra bat, hiru erizain eta administrazio laguntzaileak ere baditugu”, dio Elorriagak.

### ANBULATORIOA GOROSARRI PLAZAN

Anbulatorioa handitzeko lanak aspaldiko kontua da Elorriagaren esanetan. “Oraingo udalbatzak ahalegin handia egin du proiektu berria bultzatzeko, eta ahalegin horri esker leku onean kokatuko da anbulatorio berria, Gorosarri plazan, hain justu”.

1980a ezker ez da ia hobekuntza lanik egin oraingo erai-kinean. “Ondoan daukagun lokal txiki bat gehitu genion anbulatorioari, eta erizainak gaixoak hartzeko itxarongelari zati bat kendu behar izan genion. Txiki geratu zaigu, eta egingo diren lanei esker eraikin hobe eta lan egiteko eta herritarrak artatzeko modu hobean izango gara”.

2003. urterako anbulatorio berria izango da herrian



AINTZANE GARDOKI

*Eskoriatzako Udalak ahalegin handia egin du anbulatorio berria eraikitzeko*

*1980a ezker ez da hobekuntza handirik egin anbulatorioan, eta premia handia dago*

*Erosoagoa izateaz gain, liburutegia, artxibategia eta batzar gela ere izango ditu*

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer deritzozu anbulatorio berria egiteari?



**INES PAGALDAI**  
Erretiratua

Ondo dago dagoen lekuan. Lehen, ilara handiak izaten ziren, baina egun, ez. Gaur ere hiru egon gara bakarrik. Erosoagoa da orain dagoen lekuan.



**AMAIA BENGOA**  
Langilea

Oso ondo deritzot. Lekua agian hobe da oraingoa, baina bestela pospolo kaxa bat da oraingo anbulatorioa. Irabaziko dugun dudarik ez daukat.



**TOÑI GÓNZALEZ**  
Langilea

Ez neukan berrikuntzen berri, baina premia handia dago, izan ere, pediatraren gara etortzen garenean jende larregi egoten gara.



**ITZIAR GARAIURREBASO**  
Langilea

Irrikan nago. Azkeneko hamabost urteotan ez da ezer egin hemen, eta ez dugu lekurik lanean gurtura aritzeko. Oso txiki gelditu da anbulatorioa.



**M. ROSARIO OYANGUREN**  
Langilea

Ez neukan horren berririk, baina oso ondo iruditzen zait. Lekua oso txikia da. Dena dela, erdialdean jarri dezatela berria, hori oso garrantzitsua da.

## LABUR

### Kontzertu polita Santa Zeziliaren omenez

Pasa den astean Santa Zezilia eguna izan zela eta, larunbat arratsean kontzertu ezin hobe eskaini zuen Eskoriatzako Musika Eskolako Banderak.

Angel Bañaresek zuzendu zuen kontzertua San Pedro parrokian egin zen eta jende ugari hurbildu zen bertara. Musikariek jotakoen artean, Wagner, Rossini-Mejins, Rieks van der Velde, Emilio Cebrián Ruiz eta Kraeydoncken lanak izan ziren entzungai.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	943 71 44 07
Udaletxea	943 71 45 32
Udal Bulegoak	943 71 44 07
Udaltzaingoa	943 79 21 68
Euskaltegia	943 71 46 88
Kultura etxea	943 71 31 36
Gizarte-Laguntzailea	943 71 53 28
Kiroletxea	943 71 31 35
Liburutegia	943 71 53 56
Luis Eceiza	943 71 44 86
Jose Arana-Almen Ikastol.	943 71 49 07
Almen	943 71 54 53
Museo-Eskola	943 71 40 77
Axtroki?	943 71 41 57
HUHEZI	943 71 44 52
Osakidetza	943 71 49 17
Telesko	943 71 40 59
Taxia	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde Ospital (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze-Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
Pesa (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**BENITO LERTXUNDIREN KANTALDIA**

Gaur ostirala, gaueko 22:30etan Benito Lertxundi oriotarrak kantaldia eskainiko du kiroldegian. Sarrerak 1000 pezeta ordainduko dira alde zurretik, eta 1200 bertan.

**AXTOKIRENAGENDA**

**BERTSO AFARIAN INOIZ BAINO JENDE GUTXIAGO**

Agian Santa Zezilia egunarekin bat egin zuelako eta kinto afariak ere izan zirelako, inoiz baino jende gutxiago bildu zen aurten. Dena den, oso giro ona izan zen eta gustora egon ziren han bildutakoak.

**TAKOLO, PIRITX, ETA PORROTXEN ESTREINALDI MUNDIALA**

Bihar, 17:00etan. Sarrera, 600 pezeta. Ekitaldia amaitu ondoren, guztia jasotzen lagundu nahi dunak badu bere aukera. Aldez aurretik eskerririk asko gutxioi.

**KIROLA**

**Saskibaloian Gipuzkoako mutilak Euskadiko txapelaldun egin dira gurean**

AINTZANE GARDOKI


**Eskoriatzan jokatu zen asteburuan kadete mailako Euskadiko Saskibaloia Txapelketa. Txapelketaren laugarren jardunaldia jokatu zen herrian.**

Kadete mailako Gipuzkoako mutilen eta nesken selekzioak Arabako selekzioen kontra aritu ziren domeka goizean.

Goizeko 10:00etan ekin zioten neskek eta eguerdian mutilek hartu zuten txanda. Gipuzkoako neskek 80 puntu egin zituzten eta arabarrek 47. Mutilen artean, gipuzkoarrek 82 eta arabarrek 67 egin zituzten, eta honela, txapelketaren laugarren jardunaldian Euskadiko txapela lortu zuten gipuzkoarrek.

Euskadiko Txapelketa Donostian, Sestaon eta Gasteizen jokatzen ari baldin bada, laugarren jardunaldia jokatzeraz Eskoriatzara etorri ziren, herrian saskibaloia bultzatzeko asmoz.

Hantxe aurkitu genuen domeka goizean Germán Cea Gipuzkoako hautatzailea. Eta haren



Gipuzkoako neskek eta mutilek arabarrek gainditu zituzten

esanetan, oso sasoi onean ei dago saskibaloia, bai nesken eta bai mutilen artean. Gipuzkoan harrobi ona dagoela azpimarratu gura izan du. Selekzioko jokalaririk gehienak donostiarrak badi-

ra ere, nesken artean, June Rodríguez eskoriatzarra oso ondo jokatzen ari dela ere azaldu du Cea. Domeka eguerdian, bestalde, herriko neskek Añorga taldea hartuko dute.

**FOTONOTIZIA**



**ETBko 'Betimu' saioan Almen nagusi**

Maria Celaya, 5. mailakoa, gazteena, eta DBHko lehenengo mailako ikasleak izan ziren irabazle ETBko *Betizu* programak Arrasaten joan den astean egin zuen *Betimu* lehiaketan. Arrasateko ikasle guztiek eta Almenek hartu zuten parte, eta azken horretako Mugurdia taldekoek irabazi zuten abestian, rapean eta dantzan. Artista gaztetxoek esan digute gogor entseatu dutela euren denbora librean. Abenduaren 3tik 7ra bitartean ETBko *Betizun* ikusiko ditugu. /A.G.

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

**EDURNE**



Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

Zure  
Zerbitzura

**Villar**  
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9  
Tel.: 943 71 50

KIROLA

# Gatzagako pilotariek indartsu ekin diote txapelketari


AINTZANE GARDOKI

Lehenengo egunean nahiz eta hotz handia izan herritar ugari bildu ziren pilotariak animatzera. Maila ona erakutsi zuten kirolariek eta gainera bat baino gehiago gogor entrenatzen ari dela ere jakin dugu.

Emaitzak ondokoak izan ziren: Mikel eta Txarrantxa 22, Goio eta Oñate 13. Inaki eta Aga-

rre 22, Artabilla eta Jon 12. Beloki eta Unai 22, Salva eta Joxerra 15. Jon Sasiain eta Aritz 22, Ina eta Javier 13.

Bihar, auzolana amaitu eta gero, 18:30ak inguruan jokatu dira partidua. Kontran arituko diren bikoteak hauek izango dira: Txarrantxa-Mikel eta Salva-Joxerra. Goio-Oñate eta Inaki-Agarre. Artabilla-Jon eta Seberino-Asier. Iñusti-Patas eta Beloki-Unai.



Giro ona izan zen frontoian pasa den larunbatean

MAITE BEITIA



## Hasi dira eskola ingurua txukuntzeko lanak

Atzerapenarekin bada ere, ekin diote eskola ondoko parkea txukuntzeko lanei. Irailean hasteko ak baziren ere, aste honetan hasi dira Lurkoi enpresako langileak. Lanok bi ataletan banatzen dira: batetik, eskola ondoko parkea hesitu egingo dute, eta bestetik, parkea itxi eta gero, Udaletxetik eskolaraino joango den espaloia egingo dute. Horren ardura Excavaciones Santi enpresak izango du.

Parkea egurrezko hesiaz itxi eta espaloia egingo dute eskolako umeak eskola inguruan segurtasun osoz ibil daitezten. Guztira, bi milioi pezetako aurrekontua dute lanok. Aurrekontuaren erdia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ordainduko du.

## HERRITARREN HITZA / Jasone Elkorobarrutia

### Sorginak direla eta

Norberak laguntza eskatzen duenean erantzun positiboa jasotzea gustatzen zaigu. Gaurkoan niri tokatu zait. Lagun batek lerro batzuk idazteko eskatu zidan. Nire lehenengo erantzuna ezezkoa izan zen (beti egoten da aitzakiaren bat-eta), baina egunak pasatuta, ahalegin txiki bat eginda zertxobait idatziko nuela pentsatu nuen.

Denoi gure herrian hainbat ekintza, erakusketa, jaialdi eta festak izatea gustatzen zaigu. Aktibitate horiek antolatzea hainbat lan eskatzen dute, eta jendea laguntzeko prest egoten bada, askoz samurragoa eta

eramangarriagoa da hori guztia antolatzeko. Mota guztietako jendea bada, gazte eta heldu, hobeto!

Gatzagan San Milan Ferixa izan da oraintsu, eta aurtin ere, Gatzagako Sorginek laguntza eta elkarlana zer diren erakutsi dute, eta denontzako eredu dira.

Edade guztiko emakumeak elkartzen dira, oso edade desberdinetakoak, gainera, gazteenetatik heldue-



**"Sorginak laguntza eta elkarlana zer diren erakutsi dute. Eredu dira!"**

netara, baina oso jende berri gutxi gehitzen da taldera urteretik urtera. Ez da talde itxia, guztiz kontrakoa, herriko emakume guztienezako zabalik dago.

Edade, ohitura eta bizimodua ulertzeko era desberdinak ditugun jendea elkartzen gara. Oso jende desberdina agian pentsatuko dute

batzuek. Batzuetan, nahiz eta herri berean bizi, eta bai txikia dela gure herria, oso gutxi

ezagutzen dugu elkar. Taldeko aktibitateetan parte hartuz aukera ezin hobea dugu gure harremanak sendotzeko eta jende berri hori ere ezagutzeko.

Sorginak bai lanean eta bai juergan ere, beti umoretsu. Lanerako eta laguntzeko beti prest, eta juergarako zer esanik ez! San Milixanak eta gero, beste gauza batzuen artean, bazkari bat egingo dugu, eta bazkari horretatik, Londres atzean utzita, bidaia berri bat ere aterako da.

Gatzagan bizi diren emakume guztiei zabalik gaude, eta animatuz gero, ez zara damutuko. Sorgin batek esaten dizu.

## LABUR

### Udalak herritarrak deitu ditu biharko auzolanera

Bihar, goizeko zortzietan, hasiko da auzolana. Aspaldiko ohiturari jarraituz, eta auzolana dela medio, herriko hainbat txoko konpondu da Gatzagan: Gatz Museoa, San Juan Zahar eta Gaztainuzketako karobiak eta Bengoerrekako parkea, besteak beste. Oraingoan, berriz, hilerriaren egingo dute auzolana.

Udalak egin du deialdia, eta etxe bakoitzetik, erretiratuak salbu, pertsona batek, behintzat, parte hartu behar du auzolanera.




Abenduaren 1ean, larunbata, arratsaldeko 5etan  
ESKORIATZAKO KIROLDEGIAN

# Aupa Kintxo!

Takolo Pirritx eta Porrotxen ikuskizun berria

Estreinaldi mundiala!



# Taberna eta jatetxeen gida

**Gurea taberna**

Eguneko menuak  
plater konbinatuak

**GUREA**

Durana kalea • 943 79 20 64

**Haizea taberna**



Kafetegia  
eta  
taberna

**HAIZEA**

Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tel. 943 79 88 60

**Amets taberna**



Taberna eta kafetegia

Iparraguirre, 4 • 943 79 01 29

**Hirusta jatetxea**

Zatoz gure sukaldean ezagutzera



Ilargi plaza, 4 Tel.: 943 79 06 57

**Izotz taberna**

Zure gustuko giroa

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

**Arlutz taberna**



MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 943 79 32 34

*Gustoko musika*

**Ezkutu taberna**



Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa.: 943 79 00 00

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte, 9 • 943 79 92 01

**Baster alde jatetxea**



**SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN**

Galartza auzoa  
943 79 24 58  
ARETXABALETA

**Mitartegarai**

Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 17 51



**Urbaltz taberna**

**URBALTZ  
TABERNA**



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETA

**Zaraia taberna**

**MANTEKA  
ANAIK**

Goizeko 5:30etik  
zure zerbitzura

Araba ibilbidea 20 • 943 79 88 95

**Expres**



Santa Kurtz 16  
943 79 23 43 Zure gustuko giroa

**Josu taberna**

Josu  
harategia  
taberna



- Urdategia- gozotegia
- Kroasantegia
- Certatutako janariak

Mitarte, 1  
Tel. 943 77 03 08

**Taberna Berri**



Taberna Berri  
Jatetxea

Durana, 26 • ARETXABALETA  
943 79 20 67

**Mendiola erretegia**



Tfno 714345

**Bazkariak  
eta afariak**

Astelehenetan  
itxita


Mendiola aua • Eskoriatza • 943 71 43 45



**Line 7**  
AIGLE



**ASTORE**



**Esko Sport**

*emaiguzu konfiantza.  
kalitatea itzuliko dizugu.*

Intxaurxueta 5, Eskoriatza. 943 71 52 96  
**LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA**

**trang** world  
www.trangworld.com